BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4979

EBAZPENA, 2015eko azaroaren 9koa, Industriako sailburuordearena, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduan ezarritako laguntzak 2015eko ekitaldian jaso dituzten entitate onuradunen zerrenda argitaratzeko dena; aipatutako agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, ebazpen honen bidez onuradunen zerrenda argitaratzen da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduan ezarritako laguntzei dagokienez, 2015eko ekitaldian onuradun izan direnen zerrenda argitaratzea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 9a.

Industriako sailburuordea,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.

ERANSKINA

Entitate onuraduna	Diru-kopurua
“AFV” Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urtzaileen Elkartea	99.374,00
Euskadiko Elikaduraren Klusterra Enpresa Elkartea	37.104,00
“BBC” Basque Bioscience Kluster Elkartea	80.088,00
“HABIC” Habitat, Egur, Bulego eta Contract-eko Sektorearen Kluster Elkartea	63.192,00
“Eraikune” Euskadiko Eraikuntzaren Kluster Elkartea	40.912,00
“ESKUIN” Burdindegi eta Industria Hornikuntzaren Klusterra	50.516,00
“SIDEREX” Siderurgia produktu eta Instalazioen Esportatzaileen Espainiako Elkartea	91.956,00
“SIFE” Estanpazio bidezko Forja Industrien Elkartea	40.440,00
“MLC ITS” Euskadiko Mugikortasunaren eta Logistikaren Kluster Elkartea	75.630,00
“LANGUNE” Euskal Herriko Hizkuntz Industrien Elkartea	25.324,00
“MAFEX” Treneko Material, Ekipo eta Zerbitzuen Espainiako Fabrikatzaileen Elkartea	106.800,00
Guztira	711.336,00